



b+odonostia
i n s t i t u t o d e i n v e s t i g a c i ó n

INAUGURAZIOA
2010eko azaroaren 15a

AURKIBIDEA

1. SARRERA

2. I+Gko POLITIKAK ETA JOERAK

3. INSTITUTUAREN XEDEAK

4. INSTITUTUAREN IKERKETA-ARLOAK

5. IKERKETA-SAREAK

5.1. CIBER

5.2. RETICS

5.3. CAIBER

5.4. BESTE SARE BATZUK

6. ANTOLAMOLDEA

6.1. Elkartearen Zuzendaritza Batzordeko edo Kontseilu Errektoreko kideak

6.2. Ikerketa Batzordeko kideak

6.3. Kanpoko Zientzia Batzordeko kideak

7. INSTITUTUAREN AZPIEGITURAK ETA PLATAFORMAK

1. SARRERA

Biodonostia Euskal Autonomia Erkidegoko Osasun Ikerketako aurreneko Institutua da eta Carlos III.a Institutuak ematen duen bikaintasun-maila lortzeko zorian dago. Institutuak egiten duen lan zientifikoaren garrantziaren kanpoko adierazle da bikaintasun-maila hori.

Donostia Ospitaleak Ikerketa Plan Estrategikoa prestatu zuen 2006an. Ikerketa Institutu bat eratu ahal izateko egin beharreko ekintzak definitu ziren plan horretan. Horretarako, bere inguruneke erakundeek laguntza izan zuen, azken urteetan berarekin harremanik handienak izan zituzten instituzioekiko aliantzak sendotzeko eta gauzatzeko asmotan. Gainera, sinergia berriak ezartzen hasi zen aliatu potentzialekin.

Donostia Ospitaleak egindako lehen ahalegin horri esker, Biodonostia Institutua sortzeko oinarriak ezarri ziren, autonomia-erkidegoan eta estatuan ikerketa biomedikoaren alorrean erreferentziazko zentroa izango dena.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren eta BIO Fundazioaren arteko hitzarmenaren ondorioz, 2008an sortu zen Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV-EHU), INBIOMED, VICOMTech eta CIC Mikrogune ikerketa-zentroen, Osatek, Osasun Publikoko Zuzendariordetzaren eta INGEMA Fundazioaren itunpeko parte-hartzearekin. Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Donostiako Teknologia Elkarteak (Miramon) ere parte hartzen dute Institutuan.

COMPOSICIÓN INSTITUTO BIODONOSTIA

- Hospital Donostia



- Universidad del País Vasco



- Subdirección de Salud Pública



- Osatek



- INGEMA



- CIC MicroGUNE



- Inbiomed



- VICOMTech



- BIOEF



- Diputación Foral de Guipúzcoa



- Parque Tecnológico de San Sebastián



PARQUE TECNOLÓGICO DE SAN SEBASTIÁN



Institutua elkarlanerako asmoarekin eta inguruneke agente berriak ikerketa biomedikoaren esparruan txertatzeko politikarekin sortu zen. Horri esker, CIC Biomagunerekin, CIC Nanogunerekin, CIDETEC Fundazioarekin eta Ikerbasque Fundazioarekin elkartzeko hitzarmenak ere gauzatu daude.

2. I+Gko POLITIKAK ETA JOERAK

Biodonostia Institutuko ikerketa-jarduera Euskal Autonomia Erkidegoko, Estatuko eta Europako antolaketa-testuinguruan kokatua dago.

Europa mailan garatutako politikak Europa 2020 Estrategia izenekoarekin lotuta daude. Estrategia horren lehentasunetako bat hazkunde adimenduna da, ezagutzan eta berrikuntzan oinarritutako ekonomiaren garapenaren bitartez eta Europako Ikerketa Esparruaren, Lehiakortasun eta Berrikuntzako Esparru Programaren eta Europar Batasuneko I+Gko 2007-2013 Esparru Programaren (VII. EPren) definizioaren bitartez. VII. EP horrek definituta dituen 10 lehentasun tematikoen artean sartzen du "Osasun" arloa, 6.050 milioi eurorekin finantzatua. Osasun-programaren barruan, honako jarduerak hauen finantzaketa nabarmentzen da:

1. Bioteknologia, giza osasunerako tresna eta teknologia praktikoak
Osasunaren eta medikuntzaren esparruan aplika daitekeen ezagutza sortzea
2. Europako herritarrei ematen zaien osasun-laguntzaren optimizazioa
Ikerketa biomedikoaren emaitzak herritarrentzako izango direla bermatzea
3. Giza osasunari buruzko ikerketa beste esparruetara iristea
Oinarrizko ikerketako aurkikuntzek praktikan aplikazioa dutela eta bizi-kalitatea hobetzen lagunduko dutela bermatzea.

Estatu mailan, garatutako politikak hainbat araudi, estrategia eta planekin lotuta daude...

- 13/1986 legea, ikerketa zientifikoa eta teknikoa sustatu eta orokorrean koordinatzekoa.
- VI. Plan Nazionala, Ikerketa Zientifiko, Garapen eta Berrikuntzari buruzkoa, 2008-2011.
- 2010eko Buru-argitasun Programa.
Gobernu-buruaren eta Autonomia Erkidegoetako Lehendakarien 2007ko Baterako Deklarazioa, Ikerketari, Garapen Teknologikoari eta Berrikuntzari buruzkoa.
- Zientzia eta Teknologiaren Estrategia Nazionala (ENCYT 2015).
- 16/2003 Legea, Osasun Sistema Nazionalaren Kohesioari eta Kalitateari buruzkoa.
- 14/2007 Legea, Ikerketa Biomedikoari buruzkoa.

I+G+Bko 2008-2011 Plan Nazionala da Espainiako Zientzia eta Teknologia Sistemak duen programazio-tresna. Plan horren barruan aurkituko dugu Osasunaren arlo estrategikoa. Herritarren osasuna eta ongizatea zaintzeko ezagutza sortzea da bere helburu nagusia, eta baita gaixotasunaren prebentzioarekin, diagnostikoarekin, sendatzearekin, errehabilitazioarekin eta arintzearekin zerikusia duten alderdiak garatzea ere. Horretarako, OSNren eta sektorearekin zerikusia duten enpresen lehiakortasuna eta I+G+Brako ahalmena indartu eta areagotu behar dira.

Euskal Autonomia Erkidegoan, Eusko Jaurlaritzak osasunari ematen dion lehentasunaren adierazgarri nabarmena dira Ikerketa Programak:

- Euskal Autonomia Erkidegorako 2002-2010 Osasun Plana, batik bat pertsona behartsuenen osasuna hobetzera eta osasun-arloko gizarte-desberdintasunak murriztera zuzendua.
- 2010eko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana. Gure herrialdea Europan berrikuntzaren erreferente bihurtzeko Eusko Jaurlaritza egiten ari den apustu ausartaren bitartez ezagutzaren gizarteranzko bigarren eraldaketa egia bihurtzea da planaren helburua.
- 2010eko BioBask Estrategia. Bikaintasunaren ikerketak, emaitzen ustiapenak eta bertan parte hartzen duten eragileen elkarrekintzak definitutako benetako

bioklusterre ezarrita, biozientziekin zerikusia duen enpresa-sektore berri bat garatu nahi duen estrategia integrala.

- BioAGA XXI Plan Estrategikoa. Egitura berri batean biltzen ditu Gipuzkoako eragile guztiak: osasun-institutuak, lehen mailako laguntza, Unibertsitateak, eskualdeko ospitaleak, enpresa pribatuak, etab. Gainera, ikerketa-sareak garatzen laguntzeko sailak sortzen ditu.

3. INSTITUTUAREN XEDEAK

BIODONOSTIA Osasun Ikerketako Institutua honako helburu hauekin sortu zen.

1. Ikerketa biomedikoa, epidemiologikoa, osasun publikokoa eta osasun-zerbitzuetakoa sustatzea.
2. Osasun-sistemako programak eta politikak zientifikoki oinarritzea.
3. Ahal izanez gero, traslaziozko ikerketa indartzea. Horrela esaten zaio ezagutza zientifikoak, nazioarteko gomendioen arabera, jardunbide klinikora lekualdatzea bizkortzera zuzendutako ikerketari.


Jardun klinikoa ikerketarekin txertatzeak osasun-zerbitzuen kalitatea indartzen du, aurrerapen zientifikoak gaixotasunen prebentzioan, diagnostikoan eta tratamenduan bizkor inplementatuta, gaixoen zaintza etikoagoa eta eraginkorragoa ahalbidetuz.

Ikerketaren emaitzak industria- eta merkataritza-esparrura transferitzeko prozesuak garatutako ikerketaren emaitzen ustiapenaren erreferente gisa jartzen du Institutua. Horregatik, Institutua eratzen duten erakundeak integratzearen helburu nagusietako bat gaur egun Institutuak dituen argitalpen zientifikoan, patenteen, jabetza-erregistroen eta spin-off-en kopurua handitzea da.

Donostia ospitalearen osaera bereziak eta lidergoak traslaziozko ikerketa biomedikoa eta kooperatiboa garatzen duen eta berrikuntza eta aurrerapen teknologikoa bultzatzen dituen eredu bihurtzen dute Biodonostia, eta gaixoaren onura eta herrialdearentzako aberastasuna sortzea dira erakundearentzat bere helburu nagusiak.

6 IKERKETA-ARLOAK

Biodonostia institutuaren jarduera zientifikoa jasotzen duten 6 ikerketa-arlo handi hauek aurretiaz egindako lehenespen-prozesuaren ondorioz sortu dira.



Oharra: Biodonostia Institutuko ikerketaren lehenespena kontsulta daiteke "Ikerketaren lehenespena" izeneko dokumentuan, Plan Estrategikoa honetan bertan.


4. INSTITUTUAREN IKERKETA-ARLOAK

Biodonostia Institutuaren Plan Estrategikoak ikerketa-esparruak lehenestea ahalbidetu du. Lehenestearen eraginkortasuna barruko nahiz kanpoko analisietako irizpide eta adierazleen identifikaziotik eta bertan esku hartutako eragileen parte-hartzetik etorri zen: Ikerketa Biomedikoaren kudeatzaileak, Donostia Ospitaleko arduradunak eta ikerketa-arloko liderrak.

Honako hauek dira lehenespenaren analisitik ateratako ikerketa-esparruak:

Hiru ikerketa-arlo bertikal (Neurozientzien arloa, Digestio-aparatuko Gaixotasunen, Gaixotasun Kardiobaskularren eta beste Gaixotasun Sistemiko batzuen arloa eta Infekziozko Gaixotasunen arloa) eta hiru arlo horizontal (Epidemiologia eta Osasun Publikoaren arloa, Medikuntza Birsortzailearen arloa eta Bioingeniaritza arloa). 13 multzo finkatu, 7 multzo emergente eta multzo elkartu bat daude guztira.

Digestio-aparatuko gaixotasunak, gaixotasun kardiobaskularrak eta beste gaixotasun sistemiko batzuk



Hesteetako gaixotasunen taldea

- Koloneko minbizia
- Hesteetako gaixotasun inflamatorioa
- Helicobacter pylori eta urdail-hesteetako beste gaixotasun batzuk

Gibeletako gaixotasunen taldea

- Hepatopatia alkoholikoa
- Hepatopatia kronikoa
- Alterazio metabolikoak eredu murinoetan

Esku-hartze terapeutikoko taldea, gaixotasun kardiobaskularretan


- Kardiopatia iskemikoa
- Bihotz-gutxiegitasuna
- Arritmiak

- **Etiologia hipertentsiboko bihotz-gutxiegitasunen taldea**

- Jarduera metaloproteinasikoa bihotz-gutxiegitasun sistolikoaren eta diastolikoaren diagnostiko bereizlean
- Biomarkatzaile berrien auresate-balioa etiologia hipertentsiboko bihotz-gutxiegitasunean


- **Onko-hematologiako taldea**

Neurozientziak




- **Gaixotasun neurodegeneratiboen taldea**
 - Parkinson-en gaixotasuna
 - Alzheimer-en gaixotasuna eta beste dementzia batzuk
 - Neuropsikiatria
- **Esklerosi anizkoitzaren taldea**
- **Gaixotasun neuromuskularren taldea**
 - Gerriko distrofiak
 - Distrofia fazio-eskapulo-humerala
 - Distrofia miotonikoa
 - Duchenne-ren distrofia
 - Terapia aurreratua, jatorri genetikoko neuropatologietan
- **Garuneko hodietako gaixotasunen taldea**
- **Neuro-onkologiako taldea**

Infekzio-gaixotasunak




- Arnasbideetako infekzioen eta mikrobioen kontrako erresistentziaren taldea
- Txertaketa bidez saihestu daitezkeen gaixotasunen taldea
- HIESaren eta GIB infekzioen taldea

Epidemiologia Klinikoa eta Osasun Publikoa




- **Epidemiologia klinikoko taldea**
 - Eraginkortasun klinikoa
 - Ikerketa-metodologia
 - Ebidentzian oinarritutako medikuntza
- **Minbiziaren epidemiologiaren eta gaixotasun kronikoen taldea**
 - Dieta eta minbizia
 - Dieta eta gaixotasun kardiobaskularrak
 - Dieta eta diabetesa
 - Dieta eta gaixotasun neurodegeneratiboak
 - Nutrizio-epidemiologia
- **Ingurumen-epidemiologiako eta haur-garapeneko taldea**
 - Airearen kutsadura eta osasuna
 - Edateko/bainatzeko uraren kutsadura eta osasuna
 - Ingurumeneko kutsaduraren ondorioak jaio aurreko eta jaio ondoko garapenean
 - Edoskitzea, ingurumen-kutsatzaileak eta neurojokabidearen garapena
 - Ingurumeneko kutsadura, funtzio tiroidea eta nerbio-sistemaren garapenean dituen ondorioak

Mekikuntza Biziberritzailea



- **Zelula ama mesenkimalen taldea**
 - Zelula ama mesenkimalak, esteroideen tratamenduarekiko erresistentea den ostalariaren injertu-gaixotasunerako
- **Parkinson-en gaixotasunerako terapia biziberritzailearen taldea**

Bioingenieritza



- **e-Osasuneko taldea**
 - Irudien analisisa
 - Adimen emozionala
 - Telemedikuntza
- **Ehunen Ingeniaritza taldea**
- **Berrikuntza-taldea**
 - Diagnostikoa/detekzioa eta biomaterialak
 - Irudia eta telemedikuntza
 - Berrikuntzaren kudeaketa

Biodonostiak, gaur egun, 270 bat profesional dauzka Estatuko eta Europako hainbat proiektutan parte hartzen. Horri esker Euskal Autonomia Erkidegoko traslaziozko ikerketa biomedikoaren erreferente bilakatu da.

5. IKERKETA-SAREAK

Ikerketa Sareak osasun-esparruko ikerketa-zentro eta -taldeen kopuru aldagarri batek eratutako antolamoldeak dira eta askotariko ikerketa-motak biltzen dituzte ezagutza berri baten ekoizpenaren eta jardunbide medikoko transferentzia eta benetako aplikagarritasunaren arteko tarte murrizteko estrategia gisa.

BOII honako sare hauetako partaide da:

5.1. CIBER (Sareko Ikerketa Biomedikoko Zentroa)

CIBER deiturikoen xedea diziplina anitzeko eta erakunde anitzeko traslaziozko Ikerketa Zentro handiak sortzea da. Zentro horietan oinarrituko ikerketa egingo da, klinikoa nahiz populazioarena, ikerketa-programa bateratu bakarra garatzeko helburuarekin, euren prebalentzia kontuan hartuta Osasun Sistema Nazionalerako garrantzitsuak diren edo euren oihartzun sozialagatik estrategikotzat jotzen diren zenbait patologiatan fokatuta.

Biodonostia OIIk lau CIBERetan hartzen du parte:

- Epidemiologia eta Osasun Publikoko CIBER

- Arnasbideetako gaixotasunen CIBER
- Gibelesko eta digestio-aparatuko gaixotasunen CIBER
- Gaixotasun neurodegeneratiboen CIBER

5.2. RETICS (Osasunaren inguruko Ikerketa Kooperatiboko Sare Tematikoa)

Sistema egituratzeko ildoko RETICS azpiprogramaren helburua osasun-sistema nazionalerako estrategikotzat jotzen diren esparruetan ikerketa kooperatiboko egitura egonkor espezifikokoak finantzatzea da, gure herrialdea Europako ikerketa-esparruan hobeto kokatzea ahalbidetzeko helburuarekin.

Biodonostia Oilk honako RETICS hauetan hartzen du parte:

- Gaixotasun kardiobaskularren arrisku-faktoreak, eboluzioa eta tratamendua, eta horien mekanismoak (RECAVA)
- HIES sarea
- Sare neurobaskularra (RENEVAS)
- REDTI Biomedikuntza Konputazionalan (CONBIOMED)
- REEM: Esklerosi Anizkoitzaren Espainiako Sarea
- Biobankuen RETICS
- Teknologia Mediko eta Sanitarioen Berrikuntzako RETICS

Lankidetzak publikoa nahiz pribatua sustatzeko xedez, Teknologia Mediko eta Sanitarioen Berrikuntzako RETICSen kasuan, ikerketa zientifiko eta garapen teknologikoko jarduerak egiten dituzten teknologia medikoen eta sanitarioen sektoreko bi enpresak edo enpresa-taldek parte hartu behar dute, gutxienez. Zentzu horretan, Biodonostiak lankidetzak-hitzarmena sinatu du CIC-BiomaGUNE, CIC-NanoGUNE eta CIDETEC enpresekin.

5.3. CAIBER (Sareko Ikerketa Biomedikoa Laguntzeko Zentroa)

Sareko Ikerketa Biomedikoa Laguntzeko Zentroa (CAIBER) Osasuneko Ekintza Estrategikoan (OEE) jasotako azpiprogrametako bat da. Osasuneko Ekintza Estrategikoa Carlos III.a Osasun Institutuak deitu zuen 2008an gaixoen ikerketa klinikoko eta saiakuntza klinikoko programak garatzeko, merkataritza-interesik ez duten kasuetan bereziki.

Ekintza horren xede dira Espainiako populazioaren osasun-arazo garrantzitsuenekin zerikusia duten azterlanak, esaterako, minbiziarekin, gaixotasun arraroekin, gaixotasun neurologiko eta mentalekin eta gaixotasun kronikoekin edo kardiobaskularrekin zerikusia dutenak.

CIII Oiko Zuzendaritzaren Ebazpenaren bitartez onartu zen CAIBER eratzeak hautatutako zentroyen behin betiko zerrenda. Donostia Ospitalea 18. tokian dago 40 unitateen artean. 72 punturekin amaitu zuen, Euskal Autonomia Erkidegoan onartutako 4 unitateen artean aurrena. Donostia Ospitaleko CAIBER Unitateak hainbat Zerbitzu eta Sailetako langileak hartzen ditu bere baitan, baina batik bat Biodonostia Institutuko langileak.


5.4. BESTE SARE BATZUK

- Desgaitasunari eta adineko pertsonen laguntzeko teknologien sare tematikoa.
- Nanomedikuntzako Espainiako Plataforma. Agentzia finantzatzailea: Europako Batzordea.
- Nanomedikuntzako Espainiako Plataforma. Agentzia finantzatzailea: Zientzia eta Berrikuntza Ministerioa.

SARE-MOTA	SAREAREN IZENA	IKERKETA-TALDEA
CIBER	Epidemiologia eta Osasun Publikoa Arnasbideetako gaixotasunak Gibeleko eta digestio-aparatuko gaixotasunak Gaixotasun neurodegeneratiboak	Epidemiologia klinikoa eta minbiziarena Arnasbideetako gaixotasuna eta ABen erresistentzia Hesteetako gaixotasunak Gaixotasun neurodegeneratiboak
RETIC	Biobankua Berrikuntza, Teknologia Mediko eta Sanitarioetan Gaixotasun kardiobaskularren arrisku-faktoreak, eboluzioa eta tratamendua, eta horien mekanismoak (RECAVA) HIES sarea Sare neurobaskularra (RENEVAS) REDTI Biomedikuntza Konputazionalan (CONBIOMED) REEM: Esklerosi Anizkoitzaren Espainiako Sarea	Gaixotasun neuromuskularrak Berrikuntza HTA etiologiako bihotz-gutxiegitasuna HIES eta GIB infekzioak Garun-hodietako gaixotasunak Esklerosi anizkoitza Esklerosi anizkoitza
BESTE SARE BATZUK	Desgaitasunari eta adineko pertsoneri laguntzeko teknologien sare tematikoa Nanomedikuntzako Espainiako Plataforma, Europako Batzordea. Nanomedikuntzako Espainiako Plataforma. ZBM	Gaixotasun neurodegeneratiboak eta e-osasuna e-osasuna e-osasuna

6. ANTOLAMOLDEA

- Biodonostia Osasun Ikerketako Institutuak honako antolamolde hau du:
 - Zuzendaritza Zientifikoa.
 - Kide anitzeko Zuzendaritza-organoa (Zuzendaritza Batzordea).
 - Ikerketa Batzordea eta Kanpoko Batzorde Zientifikoa.
 - Institutuaren kudeaketa-egitura propioa, emaitzen transferentzia barne hartzen duena, laguntza eta irakaskuntzako kudeaketa-egituratik aparte. Egitura honek sail ekonomiko-administratiboan eta giza baliabideenean behar den euskarria eskainiko du eta ikerketa-emaitzen transferentzia-bulego gisa jokatu du.



6.1. Elkartearen Zuzendaritza Batzordeko edo Kontseilu Errektoreko kideak

- a) Lehendakaria: Osasun Sailburua
- b) Lehendakariordea: Osakidetzako Zuzendari Nagusia
- c) Idazkaria: Donostia Ospitaleko Zuzendari Kudeatzailea
- d) Bokalak:
 - Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Kalitate, Ikerketa eta Berrikuntza Sailburuordea
 - O+Iker, Osasun Ikerketarako Euskal Institutuko Zuzendaria
 - Biodonostia Institutuko Zuzendari Zientifikoa
 - Donostia Ospitaleko Zuzendari Medikoa
 - Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkaria
 - Euskal Herriko Unibertsitatearen ordezkaria
 - Osatek-en ordezkaria
 - Euskal Autonomia Erkidegoko Parke Teknologikoen Zuzendaritza Nagusiaren ordezkaria
 - Ikerketa Zentroen, Ikerketa Kooperatiboko Zentroen eta itundutako elkarte edo enpresen bi ordezkari
 - Itundutako beste erakunde batzuen ordezkari bat

6.2. Ikerketa Batzordeko kideak


- Biodonostia Institutuko Zuzendari Zientifikoa.
- Ikerketari laguntzeko unitatearen kidea.
- Institutuak dituen ikerketa-arlo guztietako arduradunak edo arduradun horiek eskuordetutako ordezkariak.
- Ikerketa-talde desberdinek osatutako arlo heterogeneoen kasuan, Institutuko Zuzendari Zientifikoak ahala du talde bateko edo gehiagoko ordezkaria ikerketa-batzordean sartzeko, baita taldearen arloko arduradunaren lan-ildo desberdina badu ere.
- Itundutako erakunde bakoitzeko ordezkari bat, baldin eta erakunde hori aurreko irizpideren bat betetzen duelako ordezkari ez badago.

6.3. Kanpoko Batzorde Zientifikoko kideak


- JOAN RODÉS TEIXIDOR: Digestio-aparatu espezialista, IDIBAPS Ospitale Klinikoko Osasun Ikerketa Institutuko Zuzendaria.
- EMILIO BOUZA SANTIAGO: Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Mikrobiologiako Katedraduna. Gregorio Marañón ospitalea.
- MIGUEL ANGEL PIRIS: Anatomia Patologikoko eta Minbiziaren Diagnostiko Molekularreko espezialista, CNIOko Zuzendariordea.
- ANTONIO BERNAD MIANA: CSICeko Ikerketa Irakaslea. Kardiologia biziberritzailea, Kardiologiako Ikerketen Zentro Nazionala.
- JOSÉ LÓPEZ BARNEO: Fisiologiako Katedraduna, Sevillako Ikerketa Biomedikoko Institutuko Zuzendaria.
- PEDRO MIGUEL ECHENIQUE: EHUko Materia Kondentsatuaren Fisikako Katedraduna. Donostia International Physics Center-eko Zuzendaria.

7. INSTITUTUAREN AZPIEGITURAK ETA PLATAFORMAK

BIODONOSTIA institutoaren ERAIKINA Donostia Ospitalearen inguruan dago eta berak hartuko du Biodonostia Institutuko langileen proportziorik handiena. Ikerketa-jarduera egiteko erabiliko den eraikin nagusiak ikerketa-taldeak, ikerketari laguntzeko plataforma zientifikoak eta administrazio eta kudeaketarako guneak hartuko ditu. Eraikinak lau solairu eta 3.552,35 m² ditu, eta modu honetan dago banatuta:



Biodonostia Institutua osatzen duten erakundeen ekipamendu eta azpiegitura guztiak Institutuko langile guztien eskura daude eta kasu bakoitzerako proposatutako araudiaren arabera erabil ditzakete.



Institutuko kudeaketa-organoa eraikinaren beheko solairuan dago, eta honako unitate hauek ditu:

1. IKERKETARI LAGUNTZEKO UNITATEA, honako unitate hauek hartzen dituena:

1.1. Proiektuen Unitatea, Institutuko nahiz Donostia Ospitaleko ikertzaileei eta ikertzaile-taldeei laguntza ematen diena ondorengo zerbitzu hauetan:

- a. Tokiko, autonomia-erkidegoko eta estatuko deialdien bilaketa, hedapena eta informazioa.
- b. Ikertzailearentzako aholkularitza: zalantzak argitzea eta eskabideak egokitzea.
- c. Agentzia finantzatzaileekin harremana
- d. Eskabideak eta dokumentazioa izapidetzea
- e. Jarraipena:
 - o Gastu, aldaketa eta luzapenen harrera eta kudeaketa
 - o Urteko eta bukaerako txostenak

1.2. Saiakuntza Klinikoen Unitatea/CAIBER: Saiakuntza Klinikoa (SK) egitetik hasi eta haren koordinazio integraleraino hartzen du, eta hainbat zerbitzu eskaintzen ditu, esaterako, Sken Farmazia Unitatea eta SKen Ateratzeen Unitatea.

1.3. Laguntza Metodologikoko Unitatearen xedea kalitatezko ikerketa sustatzea eta Ikerkuntzarako kanpoko baliabideak lortzea da, eta bere funtzio nagusia Institutuko nahiz kanpoko beste ikertzaile batzuei laguntza metodologikoa eta bioestatistikoa ematea. Aholkularitza hori bost atal nagusitan zehazten da:

- a. Azterlanen diseinua: bezeroarekin lankidetzan diseinatzen da proiektua, eta lantzen den proiektu-proposamenean:

- eredu teorikoa eta hipotesiak zehaztu eta eragingarri bihurtzen dira
 - helburuak finkatzen dira
 - ikerketa-estrategia hautatzen da: diseinua eta bere baliagarritasuna
 - metodologia definitzen da: aztertu beharreko populazioa zehaztu, laginaren tamaina kalkulatu, eta datu-bilketako aldagaiak eta metodologia definitu.
 - analisi estatistikoaren plana
 - mugapenak nola saihestu edo minimizatu
- b. Ikerketa-azterlanetarako datu-baseen diseinua eta sorkuntza
 - c. Analisi estatistikoa
 - d. Emaizten interpretazioa eta aurkezpena.
 - e. Argitalpenetan laguntza.

1.4. Biodonostia Institutuko Berrikuntza Unitatearen xedea teknologia eta material sanitarioen sektore ez-farmakologikoan berrikuntza sortzea da, osasun-arloko ekipamendu, gailu, erreaktibo, material eta IKTei dagokienez.

Horretarako:

- Ospitaleko ikertzaile klinikoaren eta Institutuarekin ituna sinatuta duten eta/edo Berrikuntza Sareko kide diren ikerketa-zentro eta enpresen arteko lotura teknikoa egiten dute.
- Institutuak bideratzen dituen proiektuen teknologia-transferentzia sustatzen du OTRI sortu berri baten bitartez.
- Institutuko ikertzaileek parte hartzen duten ikerketa-proiektuetan zerbitzuak emateko eta emaitzak ustiatzeko akordioak negoziatzeko orduan aholkularitza eta ikuskaritza eskaintzen du.

2. KUDEAKETA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOKO UNITATEA, honako alderdi hauez arduratzen dena:

- Ikertzailearen eta iturri finantzarioaren arteko bitartekaritza, honako arlo hauei buruzko informazioa eta aholkuak emanaz:
 - (a) Deialdiak
 - (b) Aurrekontuak
 - (c) Akordioak
- Iturri finantzariora izapidetzea:
 - (a) Proiektu, Giza Baliabide eta azpiegituretarako laguntzak eskatzea
 - (b) Zuzenketak, alegazioak eta errekurtsioak
 - (c) Proiektuetan aldaketak egiteko baimena eskatzea: egikaritzea-luzapenak, kontu-sailen aldaketak, ikerketa-taldeko aldaketak, etab.
 - (d) Txosten zientifiko eta ekonomikoak
- Funtzak hartzea eta proiektuak berekin dituen gastuak egikaritzea:

- (a) Langileak kontratatzea eta ikerketarako bekadunak esleitzea
 - (b) Ekipamendua eta kontsumigarriak erostea
 - (c) Zerbitzuak kontratatzea
 - (d) Bidaia, izen-emate eta abarren ordainketa
- Proiektuen jarraipena:
 - (a) Diru-laguntzen arauak betetzen direla zaintzea, diru-itzulketak saihestuz
 - (b) Kanpoko auditorien euskarria

Biodonostia Ollaren 1. solairuan dago Donostia Ospitaleko ADN BioBanku gunea. Jasotako lagin guztiak ateratzeko eta kontserbatzeko instalazioak eta langile kalifikatuak ditu. Gure guneak odol-lagin biologikoak (askotariko produktuak , esaterako, seruma, plasma, ADN, ARN, zelulak, etab. lortzeko) nahiz listu-laginak hartzen ditu (ADN lortzeko), biomedikuntza eta bioteknologiako ikerketa aurreratua garatzeko helburuarekin.

Biodonostia Institutuak 700 m² inguruko animalarioa du eraikinaren -1. solairuan kokatua dagoena. Honako eremu hauek ditu: operazio-gela, operazio-gelaren aurrekoa, laborategia, aldagelak, bulegoak, hesi-eremua eta baita animaliak eduki eta mantentzeko beharrezkoak diren instalazio guztiak ere.

Instalazioaren xedea malgua izatea eta ikertzaileei planteatzen zaizkien arazoei soluzioa ematea da. Animalia txiki eta ertainekin (*sagua, arratoia, txerria*) lan egiteko sortutako instalazioa da eta esperimenduetan baliatzen diren animaliei eta horien inguruneari buruzko aholkularitza teknikoak ematen die erabiltzaileei. Helburu zientifikoetarako erabiltzen diren animalien babesari buruzko indarreko legeria betetzen dela zaintzeaz ere arduratzen da.

Animalarioak hainbat ikerketa-arlori eman diezaieke zerbitzua, esaterako, kirurgia eta protesien arloari eta baita eragindako patologiak dituzten animalia-ereduenei eta eredu transgenikoenei ere.

Hazkuntza zelularren plataforma eraikinaren bigarren solairuan dago eta hutsa egiteko nahiz CO₂ eta nitrogenoa kanalizatzeko tresneriarekin hornitutako 28 m²-ko hazkuntza-gela bat eta beste hazkuntza-mota batzuk egiteko 8 m²-ko gela isolatu txiki bat ditu. Plataformak BIO II A motako 4 Telstar hazkuntza-kanpai, CO₂ / O₂-ko 5 inkubagailu, kameradun 4 mikroskopio alderantzikatu eta hoztutako zentrifugadorea ditu, Biodonostia Institutuko ikertzaile guztiek erabiltzeko ekipamendu gisa.

Biodonostia Institutuko Genomikako Unitateak aholkularitza eta ikerketa-taldeekiko elkarrekintza eskaintzen ditu aztertzen eta diseinatzen ari diren arazo biologikoetarako genomika eta transkriptomikako teknikak ezartzeko eta/edo esperimenduei ekiteko bide berriak fintzeko. Jarraian aipatzen diren zerbitzu hauek osatzen dute:

- Mikroarrayen zerbitzua: Mikroarrayen plataforma Affymetrix teknologian oinarrituta dago. Affymetrix teknologia etengabe ari da garatzen eta ikertzaileen azkeneko premia zientifikoaren arabera eguneratzen da. Azpiegitura horrek genomika funtzionaleko hainbat tresna eskaintzen ditu, erregulazio transkripzionaleko edo adierazpeneko azterlanak egiteko aukera ematen dutenak.
- Denbora Errealeko PCR Kuantitatiboko zerbitzua: Adierazpen-analisisa mikroarray deiturikoen bidez egin ondoren, adierazpen diferentziala erakutsi duten gene hautagaiak balioztatu behar dira eta horretarako erabiltzen da aipaturiko plataforma.

- Sekuentziazio Zerbitzua: mutazioak detektatzeko sekuentziazioaz gain, fluoreszentiarekin markatutako ADN-zatikien analisiak eta mikrosateliteen (STR, VNTR, etab.en) analisiak egiten dira, eta baita MLPA bidezko kuantifikazio edo dosifikazio alelikoa ere.
- Bioanalyzer zerbitzua: Plataforma horren bitartez, ondoren aztertuko den ARNaren edo ADNaren kalitatea analizatzen da.